



HERRIKO KONTSEILUKO ERABAKIA ORTZAIZEKO HERRIA

2025ko urtarrilaren 6ko bilkura

Bi mila eta hogeita bosteko urtarrilaren seian, arratseko zortzitan, Ortzaizeko Herri Biltzarra ohi bezala deitua izan-eta, legeak behartzen duen kopuruan bildu da, biltzarren ohiko lekuan, Jean-Marc OÇAFRAIN auzapeza lehendakari izanik,

Hor zirenak : AYÇAGUER Elorri, CASIRIAIN Elena, DACHAGUER Peio, FALXA Odile, GOICOECHEA Iñaki, HEGUY Antton, IDIART Claudine, IÑARRA François, IRIART Jean Claude , JORAJURIA Ramuntxo, LEKUMBERRY Xantxo, MATEO Jean François, OÇAFRAIN Jean-Marc, PERUSANSENA Elodie.

Barkatuak zirenak : CHAMALBIDE Corinne.

Bilkurako idazkari izendatua izan da : MATEO Jean-François.

Deialdiaren eguna : 2025ko urtarrilaren 2a

Afitxatze eguna : 2025ko urtarrilaren 2a

1. ERABAKIA: 623 ARTIKULUAREN ERABILTZEA: **«IRAGARKIAK, ARGITALPENAK ETA HARREMAN PUBLIKOAK»** *(7.10 nomenklatura)*

Auzapezak biltzarkideei jakitera eman die Altxortegiko zerbitzuek Herri Biltzarraren erabakia eskatzen dutela, non Auzapezari baimena ematen zaion 623 artikuluan, «Iragarkiak, argitalpenak eta harreman publikoak», ezarriko diren fakturen ordaintzeko. Auzapezak zehaztu du Altxortegiko zerbitzuek galdegin dutela gai berari buruzko 2020ko uztailaren 7ko erabakian zerrendatzen diren gastuen izaera zehaztea.

Auzapezaren azalpenak entzunik eta luzaz eztabaidaturik, Herri Biltzarrak,

BAIMENA EMAN DIO, Auzapezari honako gastuak 623 artikuluan, «Iragarkiak, argitalpenak eta harreman publikoak», ezartzeko:

- harrera, estreinatze eta ospakizun gastuak (lore-sortak, edariak, bixkotxak eta abar),
- kirol eta kultur animazioen eta udako ekitaldien (kanpoko zinema, gaueko merkatua, Ortzaizeko bestak, erakusketak, erreken garbitzea, informatika tailerrak) antolatzeko gastuak,
- lan-saioetako apairuak, edariak eta Herriko Etxearentzako bestelako erosketak
- erretretara joaten diren herriko langileentzako opariak, herriko langileentzako urte hondarreko opariak (osasun segurantzaren hilabeteko atalasearen %5era mugatua), ezkontza urte betetzeen opariak, eta abar ...
- biltzar nagusi eta kirol lehiaketen errezibitzeko gastuak,

- Herriko Etxeari zerbitzuak eskaintzeagatiko gastuak.

Kide kopurua : 15

Hor zirenen kopurua : 14

Balitzko boz kopurua : 14

ALDE : 14

KONTRA : 0

ABSTENTZIO : 0

Gorago eman egun, hilabete eta urtean, presente ziren kideek erregistroa izenpetu dute.
Laburpen egiaztatuaren baliokoa.

ORTZAIZEN, 2025ko urtarrilaren 6an

Auzapeza,
Jean-Marc OÇAFRAIN

Betegarria bilakatu den akta,
2025/01/16an publikatu edo notifikatu ondoan, Eta
Prefeturan pausatu ondoan 2025/01/16an.

